Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4505

EBAZPENA, 2010eko abuztuaren 23koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilbao-Donostia trenbidean Karakateko gurutzaketarako tartea egiteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzen duena.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2009ko abenduaren 16ko Ebazpenaren bidez Bilbao-Donostia trenbidean Karakateko gurutzaketarako tartea egiteko eraikuntza-proiektua onartu zen.

Eraikuntza-proiektuak bi helburu ditu: batetik, Bilbao-Donostia linearen erdibidean edo, burdinbide bakarrekoa baita, burdinbide bikoitzeko tarte bat egitea, salgai eta bidaiari trenak elkar gurutzatzeko eta aurre hartzeko, eta horrela linearen ustiapen-baldintzak hobetzeko. Eta bestetik, egungo trazaduraren ezaugarriak ere hobetzea, zirkulazio-abiadura bizkortzeko, 100 km/h ingurura, eta gehieneko malda txikitzea, gehienez ere 15 milarenekoa izan dadin; horrela, gurutzaketarako tartea etorkizunean burdinbidea bikoizteko egingo diren obrekin bateragarri izango da.

Funtsean, trenbide-linearen 52+818 eta 53+601 kilometroen arteko zatian, 782 metroko luzera izango duen saihesbidearen plataforma egitea, burdinbidea muntatzea eta tartea elektrifikatzea izango da xedea, eta horrekin batera, guztira 479 m baina 400 m erabilgarriko luzera izango duen bazterbide bat egitea.

Erasandako lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar BEZala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta partzela-planoak datoz.

2010eko ekainaren 2ko Ebazpenaren bidez, proiektua burutzeko behar ziren ondasun eta eskubideak jabeei nahitaez kentzeko prozedura abiaraztea eta desjabetzeei buruzko eranskina jendaurrera ateratzea erabaki zen. Interesdunei jakinarazi zitzaien; hainbat aldizkaritan argitaratu zen: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2010eko uztailaren 9ko 131 zk.an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, egun berean, 129 zk.an, 2010eko uztailaren 9ko «Berria» eta «Diario Vasco» egunkarietan; eta Elgoibarko Udalaren iragarki-oholean jarri zen.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4505

RESOLUCIÓN de 23 de agosto de 2010, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se aprueba la relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto constructivo del cruzamiento de Karakate de la linea Bilbao-Donostia».

Mediante Resolución de 16 de diciembre de 2009, del Director de Infraestructura del Transporte, se aprobó el «Proyecto Constructivo del Cruzamiento de Karakate de la Línea Bilbao-Donostia».

La actuación que contempla el Proyecto Constructivo persigue un doble objetivo: construir un tramo de vía doble en un punto intermedio del trazado correspondiente a la línea existente Bilbao-San Sebastián, que actualmente cuenta con una única vía, para posibilitar el cruce y adelantamiento de trenes de mercancías y pasajeros, mejorando así las condiciones de explotación de dicha línea. Así como la mejora de las características del trazado actual para aumentar la velocidad de circulación al entorno de los 100 km/h y reducir la pendiente máxima de su rasante a un máximo de 15 milésimas, compatibilizando así la ejecución del tramo de cruzamiento con las futuras actuaciones de desdoblamiento de la línea.

El alcance fundamental de las obras consistirá en la ejecución de la plataforma, montaje de vía y electrificación de un tramo en variante de la línea existente de 782 metros de longitud, ubicado entre los km 52+818 y 53+601 aproximadamente, así como de una vía de apartado asociada a ella que cuenta con 479 metros de longitud total (400 metros de longitud útil).

A efectos de obtención de los terrenos y de la gestión de los bienes y derechos afectados, el Proyecto contiene la identificación pormenorizada de los mismos mediante la relación y planos parcelarios.

Mediante Resolución de 2 de junio de 2010 se acordó iniciar el procedimiento de expropiación forzosa de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de este proyecto y se sometió a información pública la relación del Anejo de Expropiaciones, notificándose a los interesados y publicándose en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 131, de 9 de julio de 2010, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 129, de la misma fecha, en los diarios «Diario Vasco» y «Berria» de 9 de julio de 2010 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Elgoibar.

Este órgano es competente para la adopción de los actos de tramitación y resolución del procedimien-

obrak egin ahal izateko izapideak egin eta nahitaezko desjabetze-jardunbidea ebazteko, hala ezartzen baitu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 15.1.h) artikuluak, maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e) artikuluari dagokionean.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluak ezartzen du trenbideak jarri edo lineak zabaltzeko proiektuak ofizialki onartzeak berekin ekarriko duela proiektuak erasandako eta identifikaturiko ondasunak okupatzea onura publikokotzat eta lehenbailehen egin beharrekotzat jotzea; eta horrek ahalmena ematen dio Administrazioari Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako jardunbidera jotzeko eta, hortaz, erasandako lurrak okupatu edo ondasunak eskuratzeko; horretarako, lehenbizi, desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak zehaztu, titularrak identifikatu eta baloraziorako behar diren datu eta azalpenak jasoko dira aktan, eta perituak ezarritako diru kopurua, ordaindu edo okupatu aurretiko gordailu gisa utzi beharko da; eta, bidezko bada, premiazkotasunak ekarritako kalteen ordaina ere eman beharko zaie.

Beraz, aurrekariak, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta haren Erregelamenduan xedatutakoa, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik,

EBATZI DUT:

Bilbao-Donostia trenbidean Karakateko gurutzaketarako tartea egiteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta lehenbailehen okupatu beharrekotzat jotzea, Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluan xedatutako ondorioekin.

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Garraio Azpiegituraren zuzendariari edo Garraio eta Herri Lanetako sailburuordeari, Ebazpena jakinarazi edo argitaratu egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abuztuaren 23a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO.

to de expropiación forzosa para la realización de las obras de infraestructura ferroviaria de competencia de la Comunidad Autónoma, según lo dispuesto en el artículo 15.1.h) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en relación al artículo 10.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo.

La legislación sectorial aplicable contiene una declaración de utilidad pública y de urgencia de la ocupación de los bienes afectados identificados en los proyectos de establecimiento o ampliación de líneas ferroviarias oficialmente aprobados (artículo 6.2 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario), declaración legal que faculta a la Administración para acudir al procedimiento previsto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, procediendo a la ocupación de los terrenos o a la disposición de los bienes afectados, previo levantamiento de actas en las que se describan dichos bienes o derechos, se identifique a sus titulares, y se hagan constar los datos precisos para su valoración, y previo abono o consignación de la cantidad determinada por el perito como depósito previo a la ocupación y, en su caso, de la indemnización por el importe de los perjuicios causados por la urgencia de la ocupación.

En consecuencia, visto lo actuado y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 20, 21 y 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y su Reglamento, y demás disposiciones concordantes y de general aplicación.

RESUELVO:

Aprobar la relación adjunta de bienes y derechos afectados por el «Proyecto Constructivo del Cruzamiento de Karakate de la línea Bilbao-Donostia», y declarar la necesidad de su ocupación con los efectos señalados en el artículo 6.2 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario.

Contra la presente Resolución cabe interponer recurso de alzada ante este órgano o ante el Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, dentro del plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación o, en su caso, publicación.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de agosto de 2010.

El Director de Infraestructura del Transporte,
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO.

Lurzati zk. *Parcela*	Jabea *Propietario*	Desjabetzea *Expropiación* (m^2)	Zortasuna *Servidumbre* (m^2)	Aldi baterako okupazioa *Ocupación temporal* (m^2)	Katastroko izaera *Naturaleza catastral*	Poligonoa *Polígono*	Lurzatia *Parcela*
001	Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	22	0	749			
002	M.ª Angeles y José Miguel Gabilondo Alberdi	2315	0	406	landa-lurra / *Rústica*	18	006
003	M.ª Angeles y José Miguel Gabilondo Alberdi	0	0	986	landa-lurra / *Rústica*	19	056